



JOKORAKO SARBIDEKO INTERDIKZIOEN ERREGISTRO OROKORRA (JSIEO; gaztelaniaz, RGIAJ) INTERESDUNAK BERAK ESKATUTA

(Eskuz betez gero, idatzi maiuskulaz eta letra argiz. Idatzi zenbakiak ere modu argian. Ahal izanez gero, bete inprimakia ordenagailuaren bitartez eta ondoren inprimatu. Eskaera sinatu beharra dago. Nortasun agiriaren kopia erantsi behar da)

DATU PERTSONALAK: (Idatzi datu hauek nortasun agirian azaltzen diren moduan)

IZENA:			
1. ABIZENA:		2. ABIZENA:	
NORTASUN AGIRI MOTA:			
NAN	AIZ / Bizileku-txartela	(Dokumentu hauen bitartez lineako eta joko presentzialetako debekua egiaztatu ahal izango da)	
Pasaportea	Beste bat	(Dokumentu hauen bitartez, joko presentzialetako debekua soilik egiaztatu ahal izango da)	
Dokumentuaren zk.		(Espainiarra edota AIZ duen atzerritarra bazara, NAN edo AIZ idatziz bete beharko duzu eskaera. Joko presentzialetan babes handiagoa izateko, bete beste eskaera batzuk pasaportearen edo onartutako beste nortasun agiri bat adieraziz)	
NAZIONALITATEA:	JAIOTZA-DATA (uuuu/mm/ee):	SEXUA:	
		Gizonezkoa	Emakumezkoa
HELBIDEA: (Jakinarazpenak bidaltzeko; zehaztu kale mota eta izena, zenbakia, atalondoa, eskailera, solairua, atea) POSTA KODEA:			
UDALERRIA:	PROBINTZIA:	HERRIALDEA:	
E-MAILA:	1. TEL.:	2. TEL.:	

ESKAERA (Hautatu aukeretako bat, gutxienez)

- JSIEOn izena ematea (ALTA Erregistroan: lineako jokoetarako edo joko-aretoetarako sarbiderik ez izateko)
- JSIEOko datuen aldaketa
- JSIEOn izen-ematearen ezeztapena (BAJA Erregistroan: izena emanda egon eta berriro jokatu nahi izanez gero)
- JSIEOko egoeraren ziurtagiria

ERANTSITAKO DOKUMENTUAK

NAN AIZ / Bizileku-txartela Pasaportea Beste bat (zehaztu)

ADIERAZPENA, LEKUA, DATA ETA SINADURA

Ez dut onartzen Joko Antolaketa Zuzendaritza Nagusiak Ogasun eta Funtzio Publiko Ministerioaren Nortasun-datuen Kontsulta Sistemaren bitartez izapide hau burutzeko beharrezkoak diren nire nortasun-datuak egizta ditzan.

Sinatzaileak **ADIERAZTEN DU**, ardurua osoa bere gain hartuta, atzealdeko informazio guztia irakurri duela, eskaeraren jarraibideak bete dituela eta bertan agertzen diren datuak egiazkoak direla.

(e)n 20 (e)ko ren (e)an

ESKATZAILEA

SINADURA:

INFORMAZIOA

JOKORAKO SARBIDEKO INTERDIKZIOEN ERREGISTRO OROKORRA

Jokoak merkaturatzen dituen edozein enpresak eskainitako ausazko jokoetara askatasunez sartzeko eskubidea haien borondatez erabili nahi ez duten pertsonen datuak biltzen dira Erregistro honetan; horien araudi erregulatzaileak jokoan aritzeko alde zuzeneko identifikazioa beharrezkoa dela ezartzen baitu zenbait kasuetan, izan ere, lineako jokoentzat estatuko araudia aplikatzen da eta bestelakoentzat, aldiz, dagokion araudi autonomikoa.

APLIKAGARRIA DEN ARAUDIA

Jokorako Sarbideko Interdikzioen Erregistro Orokorreko izen-emate prozedura azaroaren 14ko 1614/2011 Errege Dekretuaren bitartez arautzen da. Lege hau dela eta garatzen da joko arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legea, jokoaren lizentziei, baimenei eta erregistroei dagokienez.

ZUZENDARITZA NAGUSIAREN BITARTEZKO ESKAERAREN IZAPIDEA

JSIEOK eskaera jaso ondoren 15 egun igarotakoan, adierazitako helbidean jasoko duzu izapidea burutu izana berresten duen gutuna. Epe horren ondoren berrespenik jaso ez baduzu, jarri harremanetan Zuzendaritza Nagusiarekin helbide elektronikoa honetan: dgoj.interdicciones@hacienda.gob.es edo 914 250 811 telefonoaren bitartez. Jakinarazpenik jaso arte izapidea ez da amaitutzat joko.

JSIEOn izena eman gero, erregistroa estatu mailan baliozkoa izango da eta interesdunak ezin izango ditu lineako jokoak erabili (kontsultatu operadore baimenduak www.ordenacionjuego.es/es/operadores/buscar webgunean) eskaera egiteko orduan nortasun agiri gisa NAN edo AIZ erabili izanez gero, Autonomia-erkidegoetako araudien arabera, interesduna alde zuzeneko Erregistroan izena emanda ez dagoela ziurtatzeko betebeharra duten joko presentzialetan ere ezin izango da aritu (informazio gehiago lortzeko kontsultatu <http://www.ordenacionjuego.es/es/ccaa-rgjaj-ficha> webgunea).

JSIEOn izena eman ondoren, lineako jokoen operadoreek jakinarazpen automatiko bat jasoko dute eta, handik aurrera, joko-plataformetara sartzeko debekatuta izango du interesdunak. Joko presentzialetan, aldiz, dagokien Autonomia-erkidegoko Joko Unitateak Erregistro honen eguneraketa deskargatu eta erabiltzaileak identifikatzeko betebeharra duten joko-aretoei eguneraketa hau helarazi ondoren izango du eragina izen emateak, araudiak hala xedatzen baitu.

IRAUPENA

JSIEOko izen-ematea mugagabea da. Hala ere, interesdunak nahi izanez gero, izena eman zuenetik sei hilabete igaro ondoren ezeztatu ahal izango du haren izen-ematea.

DATUEN ALDAKETA

Jokoa arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legea garatzen duen azaroaren 14ko 1614/2011 Errege Dekretuaren erregistro-tutako datuen aldaketa eta ezeztapenari buruzko 61. artikulua betez; lizentzia, baimen eta joko-erregistroekin lotutako izapideak egiteko, JSIEOn izena eman duen interesdunak Erregistroko haren datuak aldatu nahi izanez gero, erabaki hori Joko Antolaketa-erako Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko dio.

BALIABIDEAK

Eskaera honek ez du administrazio bidea agortzen, hortaz, administrazio egintzaren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke JSIEOren titularrari jakinarazpena jaso ondorengo hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta ondorengo hiletik hasita, urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Erakundearen 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluek xedatutakoari jarraikiz.

DATUEN BABESA

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, Zuzendaritza Nagusi honek jakinarazten du inprimaki honen bitartez bildutako datu pertsonalak tratatzeko helburuz, fitxategi automatizatu batean sartuko direla. Horrez gain, aditzera ematen da Joko eta Apustuen alorreko araudi zehatza betetzeko xedez bildu eta tratatzen direla datuak. Adierazitako Lege Organikoan xedatutakoari jarraikiz, datuak atzitu, zuzendu, ezeztatu eta aurre egiteko eskubidea balia daiteke Joko Antolaketa-erako Zuzendaritza Nagusiari gutun bat bidaliz. C. Atocha, nº 3. 28012 - MADRIL.

Informazio gehiago www.jugarBIEN.es webgunean